

Zezenketa eta biok

Zezenketa eta biok elkar oso ondo ezagutzen dugu. Betidanik. Txikitatik zezen-plazara joan naiz sarritan, eta telebistan ere entzierroak eta zezenketa ugari ikusi ditut. Zezenketaren “figura” guztien izenak ezagutzen nituen, eta Jose Maria Manzanarezen fan amorratua nintzen.

Baina, behin batean, Gasteizko zezen-plazan, neuzkan zezenketari buruzko ideiak eta sentimenduak aldatzen hasi ziren. Egun horretan, zezenketa aspergarria eta txarra baino txarragoa zen. Bigarren mailako toreroak, katu-moduko zezenak, plaza erdi hutsik. Orduan, zezena hiltzeko unea iritsi zen. Toreroak estokea hartu zuen, eta lehenengo aldiz saiatu zen. Ez zuen lortu. Bigarrenean eta hirugarrenean ere ezin zuen lortu. Presidenteak lehenengo abisua eman zion. Gero bigarrena eta hirugarrena. Azkenean, zezen-plazara atera zen maiorala eta berak hil zuen, amorru handiz. Ez da esan behar zezenaren heriotza erabat krudela, odoltsua, gupidagabekoa izan zela. Une hartan begietatik azala erori zitzaidan, tradizioaren azala, ustezko artearen azala. Eta geldiezia den barne prozesua hasi zen, noski, zezenketaren kontra.

Barne prozesuarekin lotuta, nire ustez gizartean ere prozesu parekoa gertatzen ari da. Ikusita dago nola azken urteotan gizartearen iritzia aldatzen ari dela. Adibidez, Katalunian debekatu dituzte zezenketak, Gasteizen ez dituzte debekatu baina dagoeneko ez dira egiten. Toro de la Vega-ren jaia ere debekatu zuten. Baina batez ere zezen-plazetan nabarmentzen da: gero eta jende gutxiago doa; hemendik urte batzuetara desagertzeaz egongo dira.

Baina prozesu hau oraindik luzea izango da. Milaka lagun joaten dira zezen-plazetara. Eta haien argudioak ere sendoak dira. Lehenengoa izan ohi da zezenketak desagertuko balira zezenak ere desagertuko lirakeela, zezenak hazten direlako zezenketak egiteko. Eta beharbada arrazoa dute. Ohikoa den bigarren argudioa, zezenketaren alde, ekonomiarena da. Zezenketak desagertzen badira, honek eragin handia sorraraziko du zenbait arlotan: ganaduzaleek eta haiekin loturiko langileek, zezenketa antolatzaileek, eta abar, guztiek nabarrituko dute bere patriketan. Eta berriro arrazoa dute, dudarik gabe. Bada beste argudio bat ere zezenketaren aldekoek diotena: tradizioarena, artearena, sentimenduarena, azken finean, bihotzarena. Eta esan behar dut honekin berriro ados nagoela. Baina zer edo zer tradizioa, artea edo sentimendu sortzailea izateak ez du esan nahi zuzena denik.

Esan dudanez, bistan dago zezenketaren kontrako eta aldeko argudioak sendoak direla. Baina, nire ustez, hasitako prozesua geldiezia da. Azken finean, gero eta jende gutxiago joaten da zezen-plazetara; ekonomiak berak zezenketaren heriotza erabakiko du.

Bukatzeko, zezenketak eta biok dugun prozesuarena argitu behar dut. Dibortzioa izango da, baina batzuetan kostatzen zait emazte-ohia izango denaren alde onak ahaztea. Entzierroak esan nahi dut. Iruñean jaioa naiz, eta barru-barruan daramatzat entzierroak. Badakit ondorengo zezenketak kentzen badituzte entzierroak ez direla jada izango. Eta horrek sekulako pena emango dit. Baina helduko da eguna, eta orduan zezenketa eta biok betirako bananduko gara.

Dani